

DATUAK NIREAK, *NEGOZIOA ZUREA?*

Datuak babesteko araudia betetzen

Bideoa ikusteko eragilearentzako gida



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Data Protection
Commissioner
An Coimisinéir Cosanta Sonraí

Datu babesaren herritarren pribatutasunerako eskubidea babesteaz arduratzen da, norbanakoen informazio pertsonala abiapuntutzat hartuta. Oro har, informazio pertsonala kudeatu eta babesteko esparru bat eskaintzen du datu babesari buruzko araudiak. Honako bi eginkizun hauek ditu:

- Batetik, hainbat betebeharrak ezartzen ditu beste pertsonen buruzko informazioa dutenentzat.
- Bestetik, hainbat eskubide aitortzen dizkie herritarrei, haiei buruzko informazio pertsonala nola prozesatu behar den arautuz.

Prestakuntza-bideo honen xedea da datu babesari buruzko araudia hobeto ulertzeko lagungarri izatea eta erakundeetan, informazio pertsonala tratatzen dutenean, jardunbide egokiak erabil ditzaten suspergarri izatea.

Fikziozko enpresa bateko zuzendaritza bilera baten inguruko dramatizazio bat da. Bertan hainbat egoera islatzen dira, era praktikoan erakusteko zeintzuk akats egin daitezkeen enpresako langileak ez badaude datu babesarekin zerikusia duten gauzen jakitun. Era berean, informazioaren tratamenduan jardunbide egokiak ekar ditzaketen onurak ere islatzen dira.

Nola erabili bideoa eta gidaliburua

Langileentzako sentsibilizazio eta prestakuntza programa baten barruko atal bat da bideoa, eta horrela erabiltzeko pentsatuta dago. Izan ere, lagungarri izan nahi du erakundeek datu babesari buruzko araudiak ezarritako betekizunak bete ditzaten. Prestatzaileen eginkizuna da bideoa ikusten duten pertsonak konturaraztea laneko esparruan beste pertsona batzuen datu pertsonalak kontrolatzen dituztela, baina bizitza pribatuan beraiek ere informazio pertsonala ematen dietela beste batzuei. Eskuarlean inoren datuak erabili ohi dituen langileak gai izan behar du datu horien jabearen tokian jartzeko eta bere buruari honakoa galdetzeko: “Nola sentituko nintzen datu horiek nireak izango balira?”.

Bideoan hainbat egoera ikusten dira, eta egoera bakoitzak datu babesari buruzko printzipioak aztertzen ditu. Helburua da langileei pentsaraztea ea nola ezartzen den datu babesa haien laneko esparruan.

Bideoari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, gutxienez ordu bete eman beharko litzateke hura ikusten eta erakundeak jardunbide egokien gainean eztabaidatzen. Hala ere, hezkuntza tresna independente bezala ere erabili daiteke.

Bideoa prestakuntza prozesu baten barruan erabili behar duten eragileek aldeztatik ikusi beharko dute bideoa, eta horretaz gain:

- Datu babesaren printzipioak ezagutu beharko dituzte.
- Parte hartzaileei haien erakundeari buruzko berariazko informazioa aurkeztu beharko diete prestakuntza saioan. Horrek esan nahi du erakundearen pribatutasun politikaz eta informazioaren kudeaketa prozesuez aritu beharko direla.
- Parte hartzaileentzat garrantzitsua izan daitekeen laguntzako materiala banatu beharko dute.

Oharra.- Datu babesari buruzko oinarrizko araudia honakoa da: 1.- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko [15/1999 Lege Organikoa](#); 2.- Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko [1720/2007 Errege Dekretua](#); 3.- Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko [2/2004 Legea](#); Araudiari buruzko informazio gehiago eskura daiteke [DBEBren web orrian](#).

Prestakuntza materialari buruzko atzeraelikadura

Bideo honen erabilgarritasunari buruzko ekarpenik edo oharrik egin nahi izanez gero, edo etorkizunean egin daitezkeen prestakuntza edo laguntza materialen gaineko iradokizunik egin nahi izanez gero, pozik hartuko ditugu. Nahi izanez gero, posta elektronikoz egin daitezke helbide honetan: avpd@avpd.es.

Erantzukizun-salbuespenari buruzko oharra

Bideoaren eta gidaliburuaren edukia gidalerro orokor moduan erabiltzeko diseinatu dira. Ez du legearen behin betiko interpretaziorik egiten eta ezin da erabili lege aholkularitza egiteko.

Eszenaren azalpena

Discreet Industries (*Industria Zuhurrak*) finantza enpresa bat da, eta hamabostean behin egin ohi duten zuzendaritza bilera egiten ari dira. Bilera honako hauek daude:

Cormac	Zuzendari nagusia
Fiona	Finantza zuzendaria
Derek	Salmenta burua
Helen	Giza Baliabideen zuzendaria
Joanne	Informazio Teknologien zuzendaria

Azken bileran Cormacek agindu zion Joanneri —enpresako fitxaketa berriari— txosten bat egin zezan aztertuz ea nola betetzen zuen enpresak datu babesaren araudia. Gaurko bileran Joannek txostena aurkezten du. Aurkezpenean datu babesaren printzipioak azaltzen ditu eta enpresan ikusi dituen arazoekin lotzen ditu.

Horren ostean, datu babesaren printzipioak azaltzen dituzten hainbat eszena labur datoz, eta, bide batez, hainbat proposamen egiten dira prestakuntza saioan parte hartzen dutenek horien gainean eztabaida ditzaten.

1. Informazioa legearen arabera eta leial jokatzuz biltzea eta prozesatzea, aurretik informazioa emanaz eta adostasuna eskatuz

Lehendabizikoan Joanne konturatzen da Derekek aurreko lanean zeuzkan bezeroen datu base baten kopia bat ekarri duela oraingo lanera eta datu basean jasota dauden pertsonari ez ziela horretarako baimenik eskatu.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Zein informazio mota gordetzen duzu?
2. Nola lortu zenuen informazio hori —zuzenean dena delako pertsonarengandik ala beste pertsona edo entitate batzuegandik—?
3. Esan al zaio jendeari zertarako erabiliko den berari buruzko informazioa? Eskuratu al duzu jendearen adostasuna —bigarren mailako helburuetarako adostasuna barne?, adibidez, merkataritza helburuetarako?—.
4. Fitxategi elektronikoak eta eskuzko fitxategiak kudeatzeko sistema egokia duzu?
5. Zure erakundean ba al dago datu babesarekin zerikusia duen guztia betetzeaz arduratzen den inor?

2. Informazioa, eskatu zenean zeuden helburu esplizitu eta legezkoetarako baino ezin izango da gorde

Eszena honetan ikusten dugu Helen Frankekin hitz egiten ari dela. Frank segurtasuneko langilea da. Zirkuitu itxiko telebista bidez (bideozaintza kamerak) hartutako enpresaren instalazioetako irudi batzuei buruz ari dira. Helenek buruan darabilen asmoa da zirkuitu itxiko irudien ausazko kontrol batzuk egitea eta ordutegi kontroleko erregistroekin erkatzea (enpresak ordutegi malgua du).

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Zure erakundeak era edo kategoria askotako informazio pertsonala bil dezake, helburuaren arabera. Zein da era bateko edo besteko informazioa biltzearen xede nagusia?
2. Zure erakundeko pertsonak ohartzen dira zertarako erabiltzen den haien ardurapean dagoen informazio pertsonala?
3. Ba al dakizu pertsonak informazioa jasotzeko eskubidea dutela, eta nahi badute eragozpenak jarri ahal dizkietela zuk datuak gordetzeari, zertarako gordetzen dituzun kontuan hartuta? Ba al dakizu esan egin behar diezula zertarako gordetzen dituzun datuak?

3. Informazioa, bildu zenean zeuden helburuekin bateragarria den eran bakarrik erabili eta jakinaraztea

Fiona haserre dagoen pertsona batekin elkartu da. Pertsona hori kexatzera etorri da bulegora. Dirudenez, bere lanbide-curriculuma bidali zuen Discreet Industries enpresara, baina enpresak lan eskaintzarik egitea erabaki aurretik, Fiona pertsona horren nagusiarekin jarri zen harremanetan berari buruzko erreferentziak eskatzeko. Kontua da nagusiak ez zekiela kexaka etorri den pertsona beste lan baten bila zebilenik, eta, horren ondorioz, bien arteko harreman okertu egin da. Neskak kexa bat jarri nahi du Datuak Babesteko Bulegoan.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Nori jakinarazten diozu informazio pertsonala? Datu pertsonalak jakinarazten direnean, datu horiek bildu zirenean zeuden helburuak kontuan hartuta jokatzeko duzu?
2. Datu pertsonalak jakinarazi aurretik, erakundeko baten batekin hitz egiten duzu?
3. Gordeta duzun informazio pertsonala erabiltzen duzunean, datu horiek bildu zirenean zeuden helburuak kontuan hartuta eta koherentziaz jokatzeko duzu?
4. Ba al dakizun informazio pertsonala noiz laga edo komunikatu ahal den informazioaren jabearen adostasunik gabe? (*DBLOren 11. artikulua informazioa ematea edo datuak lagatzea ahalbideratzen du baldin eta:*
 - *Lege batek baimentzen bada lagapena.*
 - *Jendearen eskurako iturrietatik hartutako datuak bada.*
 - *Harreman juridiko bat askatasunez eta modu legitimoan onartzearen ondorioz egiten den datu-tratamendu bat bada.*
 - *Komunikazioaren hartzaila Herriaren Defendatzailea, Arartekoa, Fiskaltza, epaileak, epaitegiak edo Herri-Kontuen Epaitegia bada, eta esleituta dauzkaten eginkizunetarako behar badituzte.*
 - *Lagapena administrazio publikoen artean egiten bada eta lagatzearen helburua bada gero datu horiek xede historiko, estatistiko edo zientifikoarekin tratatzea.*
 - *Osasunari buruzko datu pertsonalak lagatzea ezinbestekoa bada larrialdi bat konpontzeko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko.)*

4. Informazioa modu seguruan eta babestuta gorde eta sekretu gorde beharra bete

Zirkuitu itxiko telebistaren bidez eskuratutako irudiak erabil daitezkeen ala ez eztabaidatzen ari direla zuzendaritzako bilera daudenak enteratu dira Derek langile guztien erregistroetan sar daitekeela bere ordenagailutik. Eta Derekek berez ez du informazio hori behar lan egiteko.

Eskuzko erregistroak suntsitzearekin lotutako segurtasun neurriak ere zalantzan geratu dira jakin dutenean nominen zerrendak agertu direla bulegoko kanpo aldean dagoen hondakinen edukiontzi batean.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Segurtasun neurriak direla eta, esan daiteke “egokiak” izatea dela garrantzitsuena. Aztertu al duzu zein informazio pertsonal duzun eta zein segurtasun neurri ezartzen zaion? .
2. Nork atzitu dezake informazioa? baimendutako langileek bakarrik eta, beti ere, jakin behar dutenaren arabera?
3. Zerbitzariak ba al dute baimenik gabeko sarbideen aurkako babesik?
4. Ordenagailuek segurtasun neurri egokiak dituzte?
5. Ba al dute segurtasun kopiak egiteko prozedurarik?
6. Zein neurri erabiltzen duzue paper, zerrenda eta abarren hondakinak botatzeko?
7. Zure instalazioak seguruak dira inor ez dagoenean?
8. Zenbatean behin berrikusten dituzue segurtasun neurriak? Ba al dago protokoloren bat idatzita?

5. Ziurtatu informazioa aproposa eta egokia dela eta ez dela gehiegizkoa

Pertsonaleko fitxategietan gordetzen dituzten informazio motak aztertzean, Joannek ikusi du langileen erlijio sinesmenak erregistratzen dituztela eta horretarako arrazoirik ez dagoela. Cormac-en ustez, enpresa sortu zen garaiko kontu bat da.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Gordetzen duzun informazioa garrantzitsua eta beharrezkoa da dituzun helburuetarako?
2. Ba al duzu irizpide objektiborik behar bezala neurtu ahal izateko zer den egokia eta garrantzitsua izatea eta gehiegizkoa ez izatea? Egiozu galdera hau zeure buruari: benetan behar ote dut informazio pertsonal guzti hau?

6. Informazio zehatza, osatua eta eguneratua gorde

Mullins jauna enpresaren bezero bat da eta mailegu bat ukatu zioten enpresako agente bati erosketa bat egitekotan zebilela. Berankorren erregistroan inskribatuta zegoen, antza. Gerora, Joannek jakin zuen Mullins jaunaren inskripzioa ez zela zuzena: berak erosi zituen ondasunak —eta ustez ordaindu ez zituenak— itzuli egin zituen, akatsen bat zutelako.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Zure administrazio prozedurak eta prozedura informatikoak egokiak al dira datuen zehaztasuna bermatzeko ?
2. Informazioa eguneratuta dagoela ziurtatzen dizuten prozedurak dauzkazu ezarrita?
3. Jendeak eska dezake erregistroetan gaizki dauden haiei buruzko datuak zuzentzeko. Horrek ba al du abantailarik? zein?
4. Zure betebeharrak bete ahal izateko, gordeta duzun informazioari buruzko aldizkako berrikusketak eta auditoriak egin behar izaten dituzu?
5. Zer egin beharko lukete langileek datuak ez direla zehatzak jakinez gero?

7. Ez gorde informazioa helburua betetzeko behar baino denbora gehiago

Mullins jaunaren historiala begiratzean, Joannek ikusi zuen oraindik haren bankuko kontuaren zehaztasunen bat zegoela jasota. Hobeto begiratu zuen eta orduan begi bistan geratu zen enpresak betiko gordetzen zituela bezeroen bankuko kontuen gaineko zehaztasunak, nahiz eta beharrezkoak ez izan. Orduan, Hellenek esan zuen berak ere behin arazoak izan zituela bere kreditu-txartelaren zehaztasun batzuk betiko gorde zituztelako ikuskizun baterako sarrerak erostean.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Ba al duzu politikaren bat informazio hori zenbat denboraz gorde behar den zehazten duenik?
2. Ba al duzu politika hori ezartzeko prozedurarik abian?
3. Ba al dakizu datu mota jakin batzuk gordetzeko/mantentzeko bete behar diren legezko betekizunak zeintzuk diren? (*Adibidez: zerga edo lan arloko erregistroak, mediku arlokoak, finantza arlokoak ...*)
4. Hainbat datu mota daudela kontuan hartuta, datuak gordetzeko ere hainbat epe al daude?
5. Sarri garbitzen dituzu artxibatze sistemak, eskuzkoak nahiz elektronikoak?

8. Norbaitek bere datu pertsonalak eskatuz gero, kopia bat eman

Mullins jaunaren historialean jasota zegoen informazio ez oso zehatzari buruzko elkarrizketa eta gero, Cormarcek galdetzen du ea zer den “atzipen eskubidea”, Joannek esaten dio Mullins jaunak eskubidea duela, eskatzen badu, berari buruz duten informazio guztiaren kopia bat jasotzeko.

Lotu egoera hori eta zure erakundea

1. Ba al duzu atzipen eskubideak tratatzeko prozedurarik? Ba al dago horren arduradunik?
2. Zeintzuk dira atzipen eskubideei erantzuteko legezko betekizunak? *(Adibidez: 30 eguneko epean erantzutea, doan izatea ...)*
3. Zein egoeratan ukatu ahal duzu atzipen eskabide baten informazio eskea? *(Salbuespenezko egoera batzuk daude, adibidez, informazioa konfidentziala izatea legez. Horretaz gain, kontuan izan behar duzu datuen izaeraren araberrako prozedurak daudela zenbait datu emateko: osasun arloko datuak edo gizarte laguntzaren arlokoak, ideologikoak eta abar).*
4. Atzipen eskabide bat legearen araberrakoa bada, eta eskatzaileari buruz duzun informazio guztiari buruzko kopia batekin erantzun nahi badiozu eskatzaileari, zer egin behar duzu, baldin eta atzipenak hirugarren pertsona baten datuak atzitzea ere ekar badezake? *(Datu babesaren arloko araudian jasotako atzipen eskubideak norberaren datuak atzitzen baino ez du uzten. Beraz, hirugarrenen datuak atzitzea eragotzi egin beharko zen, ezabatze mekanikoak erabiliz adibidez. Are gehiago, gerta daiteke hirugarren horrek bere datuak konfidentzialak izan daitezela nahi izatea eta interes hori informazioa jaso nahi duen titularrarena baino garrantzitsuagoa izatea. Hala ere, kasuan kasu, gerta daiteke horrelako atzipenak legearen araberrakoak izatea, baldin eta beste lege-arauren batek babesten dituen eskubideak erabiliz baliatu nahi badira —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea—).*
5. Baten batek zure fitxategia atzitzen badu, gustura egongo zinateke han ikus dezakeenaz?
6. Zein eragin izan dezake horrek zuk informazioa tratatzeko duzun eran?

Eztabaidatzeko gaien laburpena

1. Zein dira zure erakundearen arazorik handienak?
2. Zein dira guretzat garrantzirik handiena duten printzipioak?
3. Zer galdetu behar diogu geure buruari?
4. Datuak Babesteko Bulegoarekin harremanetan jarri behar al gara?
5. Zer aldatu behar dugu betekizunak betetzen ari garela ziurtatzeko?
6. Nor izango da gure erakundearen datu babesaren ardura duen pertsona?

Kredituak

Argitalpena:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Ale kopurua: 1.000

“Datuak Nireak, Negozioa Zurea?” proiektuaren argitalpena

Proiektuaren egokitzapena: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Inprimaketa:

LG:

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua

01008 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 016 230 – Faxe: 945 016 231

Posta elektronikoa: avpd@avpd.es - Web orria: www.avpd.es

Gidaliburu honen oinarrian dagoen informazioa honakoak argitaratutakoa da:

Data Protection Commissioner

An Comisínéir Cosanta Sonraí

Datuak Babesteko Agintaritzaren Bulegoa

Canal House, Station Road, Portarlinton, Co. Laois - Ireland.

Tel.: +353 57 868 4800 – Faxe: +353 57 868 4757

Posta elektronikoa: info@dataprotection.ie - Web orria: www.dataprotection.ie